

## Hizkuntza eta hezkuntza

**J**on Sarasuak aspaldi esan zuen: euskalki jakin batzuetan hazi eta trebatu-tako umeak abantaila txiki batzuk bazituela beste euskalki batzuetan hazi zenarekiko, bertsotan egiterako garaian. Bere burua jartzen zuen adibidetzat. Etxean Orioko euskara egiteak errazbidetzen omen zion jendearekiko komunikazioa. Konturatzen omen zen, Leintzeko euskararen bertsotan hasiz gero gaxagoa gertatzen zitzaiola jendearekikoa egitea. Azken hamabost urtean dezentelaldatu dira gauzak. Bertsotan bizkaieraz egiten dute bizkaitar bertsolari puntako gehienek Bizkaian ari direlarik. Izango du horrek eraginik noski, bertso-eskolatan ere. Baina iaz zarauztar bat suertatu zen garaile Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan. Eta aurten beste bat. Ematen du zer pentsatua. Batutik gertu samar dauden euskalkietako mintzodunek abantaila dute edo bertso-eskolen antolaketa indarra eta lana da emaitzak sortzen dituen?

## Errepidean

Euritsua joan da maiatza. Ez dakit datuek hala islatuko duten, baina nire pertzepzioak ez dio gezurrik. Errepide bazterretan auto mordoia ikusi dut iraulita edo jiraturik. Horrelakoetan, eskuineko hankak berez egiten du zimurtzera eta begi-gogorak errepidean jartzen dira derrigor, erne. Ez dakit horregatik den, akaso bai, baina jabetu naiz gero eta gutxiago egiten dudala autoan bertsotan. Ez da seinale onegia. Beti sinetsi izan dut bolantean egiten dela aurre-



DANI BLANCO

rakadarik gehien bertsotan ere. Oker botatako bertsuak autoan zuzentzen dira; etorri gabeko ideiak autoan etortzen; botatako onak autoan hobetzen dira. Imanol Lazkanoren eta etorri zait gogora: txapelketaren baterako edo izena eman eta etxean urduri egoten omen zen zer egin asmatu ezinik. Horrelakoetan autoa hartu eta norabide jakinekorik gabe gidatzen omen zuen. Errepideak eta auto-kabinako bakardadeak eragiten omen zion kantari hastea. Hura omen zen beretzat entrenamendurik onena. Erregeiek eta autopistek bestelako prezioa zuten garaiak izango ziren. Errepideetan hainbeste arrisku metatzen ez zen sasoi.

« Ez genuen bakarrak izan nahi munduan, eta poz eman zigun ez ginela frogatzeak. Kanpora jo genuen eta kanpotarrak etxera gonbidatu. Elkar ezagutza horrek bere fruituak eman zituen eta emango ditu »

## Noraezean

Bertsotan libreko saioek denetik sortzen dute. Gehienetan desasosegua, nondik hasi eta nola segi ez dakizulako. Askotan jardun hesitua samurragoa da librekoa baino. Baina bestetan asebetea sortzen ere badakite. Ez naiz aurrez eskemak egin zalea, zaletasun falta hori alferkeriak sortua ere izan daitekeela aitortuz. Norabide jakinekorik gabeko diskurtso batek bide egin eta zidor ezustekoak hartzen dituelarik, orduan sentitzen da sortzailearen benetako poza. Programatu ezinezko jarduna da, hitza hitzari eta argudioa argudioari katigatuz baino osatzen ez dena. Bertso-bazkari batean Irungo Ogasun saileko gorabehera kantatzea erabaki eta kantatzea ez legoke gaizki. Baina ederragoa da, bertan dagoen mutiko ile-hori batez hasi kantuan, eta batek esatea goizeko herri-kirol frogan sekulako *sprina* jo duela. Eta beste bertsolariak erantzutea, abiadura hori ez daitekeela alferrik gal, lapurretarako daukala mutil horrek gorpuzkera egokia. Lehen bertsolariak botatzea argalegia dela ordea, zama handirik ganean eramateko. Eta bigarrenak erantzutea, ez duela axola, gaur lapurretarik handienak ordenagailuz egiten direla. Orduan, Irungo Ogasun sailekoa letorke pare parean. Ez dakit entzuleak zenbateraino sumatzen duen, askotan, harribitxiak kasualitatez sortzen direla.



irudiak:  
Antton Olariaga

## Bertsojazza

Bertsolaritza beste esparruetara zabaltzeko ahaleginean ari gara azken urteotan. Ez genuen bakarrak izan nahi munduan, eta poz eman zigun ez ginela frogatzeak.

Kanpora jo genuen eta kanpotarrak etxera gonbidatu. Elkar ezagutzaz horrek bere fruituak eman zituen eta emango ditu. Auzoekin ere egin ditugu esperimentu bat baino gehiago: txistulariekin, dantzari eta trikitilari-ekin, antzerkilariekin, musikarien laguntzaz... Aurtun, lehen aldiz, Donostiako Jazz jaialdian parte hartzeko bideak urratzen hasi gara. Ez da ahalegina gauzatu, baina datozen urteotarako beste apustu bat jarri diogu gure buruari. Trinitate plazan nahiago halere, Victoria Eugeniean baino. Ilargiak, teilatuetakatuak eta leihoetakatuak mutxurdinekin izugarri laguntzen diete saxoa eta bertsoari.



Ematen du zer pentsatua. Euskara batutik gertu samar dauden euskalkietako mintzodunek abantaila dute edo bertso-eskolen antolaketa indarra eta lana da emaitzak sortzen dituen?

## Mugituz

Azken urteotan bertsoan deskubrimendurik egin badugu, alanbrearik gabeko mikrofonoak ahalbideak izan dira horietako batzuk. Plazarik ohikoenean ere, demagun Astigarragan eta idi-proben ondorengo saio konplimenduzko soilean, eskuan mikrofonoa duzularik, gauza desberdinak egiteko tentazioa sortzen da. Ez dago plazan entzule diren guztiei, eta guztiei berdin, kantatu beharrik. Mugitu egin zaitezke; norbaiten aurrez aurre jarri eta hari bota bertsoak. Edo harri gainean eseri. Edo bizkarra emanda kantatu... Edo mikroa alde batera utzi eta jendea hurbil dadin kale-kantoiaren bezalatsu hasi bertsoan ahots soilaren indarrez. Kokalekua desberdina denean, emaitza ere desberdina izan daiteke. Buruak ikusten ez dituen gauza asko ikus ditzakete begiek.

## Aurtengo uda

ETAk su-etena bertan behera utzi duela irakurri berri dut *Berrian*, lerro hauek idazten ari naizela. Joan zen iraileko artikuluan idatzi nuen udaldian bertsolariok izan genuela aski lanik, *betiberdina* zen gaiari *betiberdin* erantzun beharrekin.

Inork ez zekien ezer; inork ez zuen deus zapuztu nahi; inor ez zen gai esperantza lainoaz harago joateko, ez gaien planteamenduan eta ez erantzun-bertsoetan ere. Esperantza lainoari aritu beharraz kexu nintzen. Aurtengo uda oso bestelakoa etor daitekeela ematen du. Esperantza desegin eta lainoari soilik aritu beharra ez da hobe izango. ■



ETAk su-etena bertan behera utzi duela irakurri berri dut *Berrian*.

Esperantza lainoari aritu beharraz kexu nintzen. Aurtengo uda oso

bestelakoa etor daitekeela ematen du.

Esperantza desegin eta lainoari

soilik aritu beharra ez da hobe izango